



HORNIDURAK. Prozedura negoziatua, publizitatearekin.

ADMINISTRAZIO BALDINTZA PARTIKULARREN AGIRIA

I.- KONTRATUAREN XEDEA ETA ALDERDI OROKORRAK	1
1.- KONTRATUAREN XEDEA, APLIKATUKO ZAIZKION ARAUAK ETA ADJUDIKATZEKO MODUA	1
2.- KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSI, LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA LIZITAZIO OINARRIA. GEHIENEN AURREKONTUA ETA UNITATEKO PREZIOAK. KREDITUA EGOTEA ETA KONTRATUAREN PREZIOA	1
3.- PREZIOAK BERRIKUSTEA	2
4.- AGIRIAK, DOKUMENTAZIOA ETA INFORMAZIO OSAGARRIA	2
II.- ENPRESA LIZITATZAILEAK ETA LIZITAZIORAKO ONARTZEKO ESKATZEN ZAIEN DOKUMENTAZIOA	3
5.- IRAGARKI PUBLIKOA. ENPRESA ESKATZAILEAK.	3
6.- PARTE HARTZEKO ESKAERAK AURKEZTEA ETA LIZITAZIORAKO ONARTZEKO ESKATZEN DEN DOKUMENTAZIOA	4
7.- AGIRIEN KALIFIKAZIOA ETA ESKAINTZA AURKEZTERA GONBIDATUKO DIREN ENPRESEN HAUTAPENA. ESKAINTZAK AURKEZTEA, AZTERTZEA ETA NEGOZIATZEA	5
III. ADJUDIKAZIOA	9
8.- ESKAINTZEN SAILKAPENA ETA ADJUDIKAZIODUNA IZATEKO PROPOSATZEN DEN ENPRESA LIZITATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.	9
9.- BEHIN BETIKO BERMEA	11
10.- ADJUDIKAZIOA ETA JAKINARAZPENA	12
IV. KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA	13
11.- KONTRATUA FORMALIZATU AURREKO BETEBEHARRAK	13
12.- KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA	13
V. KONTRATUA BURUTZEA	14
13.- KONTRATUA BURUTZEA	14
VI. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA	20
14.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA	20





ADMINISTRAZIOARI HORNIDURAK EGITEKO KONTRATUA.

ADMINISTRAZIO BALDINTZA PARTIKULARREN AGIRIA.

I.- KONTRATUAREN XEDEA ETA ALDERDI OROKORRAK

1.- KONTRATUAREN XEDEA, APLIKATUKO ZAIZKION ARAUAK ETA ADJUDIKATZEKO MODUA

1.1.- Kontratu honen xedea da agiri honen hasierako ezaugarrien taulako A) idatz zatian azaltzen den hornidura egitea.

1.2.- Ezaugarrien taulako A) idatz zatian ezarriz gero, kontratuaren xedea bertan azaltzen diren loteetan zatituko da.

Ezaugarrien taulako A) idatz zatian mugak ezartzen dira loteetarako eskaintzak aurkezteko eta loteak adjudikatzeko.

Baldin eta adjudikazio irizpideen aplikazioaren arabera enpresa lizitatzailer batek gehienez jaso daitezkeenak baino lote gehiago jaso ahal baditu, ezaugarrien taulako A) idatz zatiko irizpideak edo arauak aplikatuko dira zer lote adjudikatuko zaion erabakitzeko.

1.3.- Hornidura agiri honetan eta baldintza teknikoaren agirian ezartzen denarekin bat etorritik egin behar da.

Ondorio guztietarako, administrazio baldintza partikularren agiri hau, ezaugarrien taula, baldintza teknikoaren agiria eta horien eranskinak kontratu agiriak dira, eta halakoak diren aldetik alderdien eskubideak eta betebeharrak arautuko dituzte. Enpresa adjudikaziodunak kontratua formalizatzeko egintzan sinatu beharko ditu, onartzen dituela adierazteko.

1.4.- Kontratazioa honako xedapen hauetan ezartzen denari lotuko zaie: agiri hau; baldintza teknikoaren agiria; 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, sektore publikoko kontratuena (horren bidez Espainiako antolamendu juridikora aplikatzen dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/UE eta 2014/24/UE Zuzentarauak); 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araubide Orokorra onartzen duena (HAKLAO); Estatuko zein Euskal Autonomia Erkidegoko kontratuak arautzen dituzten gainerako xedapen aplikagarri guztiak.

1.5.- Kontratua prozedura negoziatuaren bitartez adjudikatuko da; prozedura hori SPKLko 166 - 171 bitarteko artikuluek eta HAKLAOko edo horren ordezkari arau xedapeneko artikuluek egokiek arautzen dute.

2.- KONTRATUAREN BALIO ZENBATETZIA, LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA LIZITAZIO OINARRIA. GEHIENEN AURREKONTUA ETA UNITATEKO PREZIOAK. KREDITUA EGOTEA ETA KONTRATUAREN PREZIOA

2.1.- Kontratuaren balio zenbatetsia, lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren zenbatekoa eta lizitazio oinarria agiri honetako ezaugarrien taulako B) idatz zatian zehazten dira.



Kontratuaren prezioa unitateko prezioen bitartez ezartzen bada hornitu beharreko unitateen arabera, kontratuaren gehieneko aurrekontua eta unitateko prezioak agiri honetako ezaugarrien taulako B) idatz zatian agertzen direnak izango dira.

2.2.- Kreditu nahikoa dago kontratu honen burutzapenaren ondorioz Administrazioak edukiko dituen betebeharrak ekonomikoki aurre egiteko; ezaugarrien taulako C) idatz zatiko aurrekontu aplikazioan zehazten da.

Adierazten bada gastu espediente baten izapidetze aurreratua dela, prestazioak egiten hasteko ezinbestekoa izango da ekitaldiko indarreko aurrekontu taldean kreditu egoki eta nahikoa egotea.

2.3.- Kontratuaren prezioa adjudikazioan ezarriko da; ezin da izan Administrazioak ezartzen duen lizitazio oinarria baino gehiago.

Ondorio guztietarako, honako hauek sartzen dira kontratuaren prezioan: enpresa kontratistak kontratua burutzeko egin beharreko gastu guztiak, zuzenekoak zein zeharkakoak, indarreko xedapenen arabera aplikatu beharreko tasa guztiak, eta zerga eta lizentzia guztiak, udalena, probintziakoak zein Estatukoak.

3.- PREZIOAK BERRIKUSTEA

3.1.- Enpresa kontratistak bere gain hartuko ditu kontratua betetzearen arriskuak.

3.2.- Prezioen berrikuspena bidezkoa denez zehazteko, ezaugarrien taulako D) idatz zatian ezartzen dena hartuko da aintzat. Berrikuspena bidezkoa ez bada, idatz zati horretan adieraziko da. Aldiz, prezioen berrikuspena bidezkoa bada, idatz zati horretan berrikuspenerako aplikatuko diren indizeak edo formula polinomikoak zehaztuko dira.

Prezioen berrikuspenaren araubide juridikoa SPKLko 103 - 105 bitarteko artikuluetan eta HAKLAOko 104., 105. eta 106. artikuluetan ezartzen da.

3.3.- Ezaugarrien taulan prezioen berrikuspena ezartzen ez bada, kontratua burutzeko epealdia luzatzeak ez du inolaz ere berrikuspena eragingo, luzapenaren arrazoia Administrazioari egotzi ezean edo ezinbestekoa izan ezean (ezinbesteko kasuak SPKLko 239. artikuluan ezartzen dira).

3.4.- Ezaugarrien taulan prezioen berrikuspena ezartzen bada, aplikatu ahal izateko ezinbestekoa da bi baldintza hauek betetzea: kontratuaren zenbatekoaren ehuneko 20 gauzatuta egotea eta kontratua formalizatu zenetik urte bat igarota izatea. Beraz, ez gauzatze ehuneko (ehuneko 20) ez kontratuaren iraupeneko lehen urte, kontratuaren formalizaziotik zenbatuta, ezin dira berrikusi, SPKLko 103. artikuluan ezartzen den bezala.

4.- AGIRIAK, DOKUMENTAZIOA ETA INFORMAZIO OSAGARRIA

Administrazio baldintza partikularren agiria, baldintza teknikoaren agiria eta gainerako dokumentazioa kontratatzailearen profilean eskuratu ahal izango dira; gainera, SPKLko 138.2 artikuluan aipatzen diren kasuetan, ezaugarrien taulako E) idatz zatian aipatzen den Administrazioaren zerbitzuaren bulegoetan eskuratu ahal izango dira jendaurreko ordutegian, eskaintzak aurkezteko epealdian.

Eskaintza aurkeztu aurretik enpresa interesdunek zerbitzu horretara jo ahal izango dute lizitazioaren inguruabar berezien berri jakiteko.



Baldin eta, ezarritako epealdiaren barruan, enpresa interesdun batek agiriei eta gainerako dokumentazioari buruzko informazio gehiago eskatzen badu, SPKLko 138. artikuluan eta HAKLAOko 78. artikuluan xedatzen dena aplikatuko da.

Agiriez eta dokumentazio osagarriez eskatzen den informazioa eskaintzak jasotzeko ezarritako epealdia amaitu baino sei egun lehenago gutxienez eman behar da (izapidetzea presazkoa bada, hiru egun lehenago; salbuespena: harmonizatutako araei lotutako kontratuetan, lau egun lehenago), baldin eta eskaera gutxienez hamabi egun lehenago aurkezten bada edo kontratazio organoak kontratuaren ezaugarriak eta prozedura kontuan hartuta agirietan ezartzen duen epealdian, ezaugarrien taulako E) idatz zatian ezartzen den bezala.

Baldin eta eskaeraren xedea baldintza teknikoan agirian, administrazio baldintza partikularren agirian edo gainerako dokumentazioan ezartzen den zerbait argitzea bada, erantzuna loteslea izango da eta kontratatzailearen profilean agertuko da.

Kontratuaren espedientearen inguruko informazio guztiak eta Administrazioaren kontratu jardunaren inguruko datu eta informazio guztiak kontratatzailearen profilean agertuko dira, SPKLko 63. artikuluan ezartzen den bezala.

Kontratatzailearen profila aztertzeko Administrazioaren atarian sartu behar da; atari aurrean aipatutako ezaugarrien taulako E) idatz zatian zehazten da.

II.– ENPRESA LIZITATZAILEAK ETA LIZITAZIORAKO ONARTZEKO ESKATZEN ZAIEN DOKUMENTAZIOA.

5.- IRAGARKI PUBLIKOA. ENPRESA ESKATZAILEAK.

5.1. Iragarki publikoa aurretiazko publizitatea duen prozedura negoziatuan.

Kontratazio organoak lizitazioaren iragarkia argitaratu beharko du SPKLko 135. artikuluan ezartzen den bezala.

Kaudimen eta gaitasun irizpide objektiboak (SPKLko 86 - 91 bitarteko artikuluetan adierazten direnetakoak), eskaintzak eskaintzeko eskatuko zaien enpresa hautagaiak hautatzeko aplikatuko direnak, ezaugarrien taulako F) idatz zatian zehazten dira. Idatz zati horretan adierazten da, halaber, zenbat enpresa gonbidatuko diren gutxienez prozeduran parte hartzera (eta gehienez ere, behar den kasuetan).

Lizitazioaren iragarkian enpresa hautatzeko aplikatuko diren irizpideak edo arau objektiboak, bereizkeriarik gabeak, zehaztuko dira, eta prozeduran parte hartzera gutxienez zenbat enpresa gonbidatuko diren adieraziko da (eta gehienez ere, behar den kasuetan).

5.2. Lizitazioan parte hartzeko eskatzen duten enpresak.

Kontratuaren lizitazioan parte hartzeko eskaera aurkeztu ahal izango dute (aurrerago zehaztuko da nola) Espainiako eta atzerriko pertsona fisikoek zein juridikoek, baldin eta jarduteko gaitasun osoa badute, kontratatzea debekatuta ez badute SPKLko 71. artikuluan ezartzen denaren arabera, eta kaudimena eta lanbide gaitasuna edo gaitasun teknikoa frogatzen badituzte edo, SPKLk eskatzen duen kasuetan, behar den sailkapena badute.



Gainera, enpresek kontratuaren xede den jarduera edo zerbitzua egiteko eskatzen den enpresa edo lanbide gaikuntza eduki behar dute (ezaugarrien taulako F idatz zatian zehazten da).

Pertsona juridiko bat kontratu baten lizitaziora aurkeztu ahal izateko ezinbestekoa da kontratuaren prestazioak haren helburuen, xedearen edo jardueren esparruan egotea estatutuen edo sorrera arauen arabera.

Kontratu bat sinatzeko kaudimena eta gaitasuna frogatu nahi dituen enpresa batek beste entitate batzuetara jo dezake (ez da kontuan hartuko haiekiko harreman juridikoa nolakoa den), haien baliabideak erabiltzeko. Horretarako, frogatu behar du kaudimena eta gaitasuna kontratuaren iraunaldi osoan edukiko dituela eta beste entitate horiek ez dutela debekatuta kontratazioa SPKLko 75. artikulua ezartzen duenaren arabera.

SPKLko 69. artikuluaekin bat etorritik berariaz erabazten diren aldi baterako enpresa elkarteek ere aurkez dezakete eskaintza. Elkarteko enpresa bakoitzak bere jarduteko gaitasuna, finantza eta ekonomia kaudimena eta gaitasun teknikoa edo lanbide gaitasuna frogatu behar ditu, eta horretarako ondoko baldintzetan adierazten agiriak aurkeztu behar ditu. Agiri pribatu batean eskaintza egiten duten enpresen izenak eta gainerako datuak adierazi behar dira, bakoitzaren partaidetza eta kontratuaren indarraldian elkartearen ordezkariak edukiko duen pertsona edo entitatea zehaztu behar dira, eta kideek adierazi behar dute konpromisoa hartzen dutela aldi baterako enpresa elkartearen eratzeko adjudikazioa jasoz gero. Agiri hori elkarteko enpresa guztien ordezkariak sinatu behar dute.

Enpresa lizitatzailerak bakoitzak parte hartzeko eskaera bat bakarrik aurkeztu ahal izango du. Banako lizitatzailerak ezin dute aurkeztu beste parte hartzeko eskaintzarik aldi baterako enpresa elkarte batean. Arau hauek hausteak berekin ekarriko du aurkeztutako eskaintza guztiak ez onartzea.

6.- PARTE HARTZEKO ESKAERAK AURKEZTEA ETA LIZITAZIORAKO ONARTZEKO ESKATZEN DEN DOKUMENTAZIOA.

6.1. Lizitazio eta kontratazio elektronikoen sistemari esker eskaintzak eta parte hartzeko eskaerak aurkez daitezke, agiriak bidali eta jaso daitezke, eta kontratuak sinatu daitezke. Sistema hori Administrazioaren atarian dago (ezaugarrien taulako E idatz zatian aipatzen da).

0 eranskinean jasotako ereduarekin bat eginez eskariak aurkeztea eta ondoren ezarriko den dokumentazioa aurkeztea lizitazio eta kontratazio sistema elektronikoa erabiliz gauzatuko da, XIII. eranskinean jasotako jarraibideekin bat eginez, eta ezaugarrien taulako I) idatz zatian jasotako azken egunera arte egin ahal izango da. Azken eguna baliogabea bada, epealdia hurrengo egun baliogabea luzatuko da.

Enpresa lizitatzailerak geroago azalduko den aurkeztu beharko du C gutun azalean (itxita), datu hauek adierazita:

- a) lizitazioa
- b) enpresaren izena
- c) eskaintza sinatzen duenaren izen-abizenak, eta enpresan duen kargua

Gutun azala nahitaez sinatu behar du enpresa lizitatzaileraren ordezkariak.

Parte hartzeko eskaera aldi baterako enpresa elkartearen eratzeko konpromisoa hartu duten enpresa batzuek aurkezten badute, denen ordezkariak sinatu behar dute.



6.2. C GUTUN AZALA: KONTRATATZEKO GAITASUNA. Gutun azal honetan lizitatzaillearen erantzukizunpeko adierazpena sartu behar da (IV. eranskinean jasotako jarraibideen arabera), Europar Batasunak onartutako Europako kontratazio dokumentu bakarreko formulazio normalizatuarekin bat datorrena eta esaten duena lizitatzailleak betetzen dituela Arabako Foru Aldundiarekin kontratatzeke lege ezarritako baldintzak, kontratazio ezaugarrien taulan eta administrazio baldintza partikularren agirian ezartzen direnak, SPKLko 140. artikuluan arautzen den bezala.

Enpresak beste enpresa batzuetara jotzen badu kaudimena, gaitasuna eta baliabideak ziurtatzeko, SPKLko 75. artikuluekin bat etorritik, haietako bakoitzak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du honelako kasuetarako behar den informazioarekin (IV. eranskinean jasotako jarraibideen arabera).

Enpresa batzuek ALDI BATERAKO ENPRESA ELKARTEA eratzen badute lizitazioan parte hartzeko, elkarteko kide bakoitzak bere erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar du (IV. eranskinean jasotako jarraibideen arabera). Horrez gainera, dokumentu batean aldi baterako elkarteko enpresen izenak eta inguruabarrak adierazi behar dituzte eta bakoitzaren partaidetzaren berri eman behar dute, ordezkari edo ahaldu bakarra nor den azaldu behar dute, eta adierazi behar dute konpromisoa hartzen dutela kontratua adjudikatuz gero aldi baterako elkartea formalki eratzeke, SPKLko 69.3 artikuluan ezartzen denarekin bat etorritik.

Agirian ezartzen bada kontratuaren xedea loteetan zatituko dela eta kaudimenaz (ekonomikoa eta finantzetako) edo gaitasun teknikoaz eta profesionalaz eskatzen diren baldintzak desberdinak badira lote batetik bestera, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu behar da baldintza berak aplikatzen zaizkion lote edo lote talde bakoitzeko.

Lizitatzaillearen erantzukizunpeko adierazpenean, Europar Batasunak onartutako Europako kontratazio dokumentu bakarreko formulazio normalizatuarekin bat etorritik, enpresaren edo ABEEren helbide elektronikoa adierazi behar da, jakinarazpenak bidali ahal izateko, SPKLko hamabosgarren xedapenean ezartzen den bezala.

Gainera, gutun azal honetan sartu behar da lizitatzaillea enpresa talde bateko kidea delako adierazpena, behar denean (eredua V. eranskinean).

6.3. Kontratua adjudikatu aurretik zein adjudikatu ondoren zein lanak egiten diren artean administrazioak egiaztatu ahal izango du egia denez adierazten dena C gutun azaleko agirietan, enpresa adjudikaziodunak bere kontratatzeke gaitasunaz aurkeztu duen dokumentazioan eta, behar den kasuetan, ezaugarrien taulan gauzatze baldintza bereziak betetzen direla frogatzeko sartzen diren agirietan. Enpresak adierazitako datuak eta inguruabarrak gezurrezkoak izatea kontratua deuseztatzeke arrazoia izan daiteke, kontratistari egotz dakiokeen hutsegitea baita, eta horrek behin betiko bermea galtzea ekar dezake edo, bestela, bermerik jarri ez bada, edo eratu beharrik izan ez bada, bermearen adinako kalte ordaina ordaindu beharra. Gainera, Administrazioari eragindako kalteak eta galerak ordaindu beharko dira, hain zuzen jarritako bermearen zenbatekoaz gorako kopurua.

7.- AGIRIEN KALIFIKAZIOA ETA ESKAINTZA AURKEZTERA GONBIDATUKO DIREN ENPRESEN HAUTAPENA. ESKAINTZAK AURKEZTEA, AZTERTZEA ETA NEGOZIATZEA.

7.1.- KONTRATAZIO MAHAIA. Kontratazio Mahaia eratuko da jasotzen diren parte hartzeke eskabideak aztertzeke. Mahaiko kideak ezaugarrien taulako K) idatz zatian ezartzen dira.



7.2.- PARTE HARTZEKO ESKAERAK AZTERTZEA. Aldez aurretik, Kontratazio Mahaiak C gutun azalean zer dagoen aztertuko du, eta garaiz eta behar bezala aurkeztutako erantzukizunpeko adierazpenak egiaztatuko ditu. Adierazpenak egiaztatzeke, mahaiburuak gutun azalak irekitzeko aginduko du. Mahaiak akats materialik antzematen badu aurkeztutako agirietan, enpresa interesdunei jakinaraziko die eta hiru egun balioduneko epealdia emango die akatsak zuzentzeko.

Kontratazio Mahaiak aurkeztutako erantzukizunpeko adierazpenak ziurtatu ondoren eta hala badagokio, ikusitako akatsak edo hutsak zuzendu ondoren, horien aukeraketa irizpideak betetzen dituzten enpresak zehaztuko ditu ezaugarrien taulako F) idatz zatian definitutako gutxieneko irizpideen arabera, eta berariaz adieraziko ditu lizitaziorako onartu direnak, ukatu direnak eta ukatzeko arrazoiak.

Kontratazio Mahaiak, enpresen nortasuna, kaudimena eta gaitasuna egiaztatu ondoren, gonbidatzeko proposatzen dituenen zerrenda bidaliko dio kontratazio organoari, eta honek ebazpena emango du behin betiko aukeratutakoak ezartzeko eta haiek eskaintza ekonomikoa aurkeztera gonbidatzeko; ebazpenean eskaintzak aurkezteko epealdia finkatuko du, bai eta betekizun teknikoak betetzen direla frogatzeko aurkeztu beharreko agiriak eta eskaintzak non eta noiz (eguna eta ordua) irekiko diren ere.

7.3.- ESKAINTZAK AURKEZTEA.- Eskaintzak hurrengo idatz zatietan azaltzen diren den lizitazio eta kontratazio elektronikoen sistema erabiliz aurkeztuko dira; horretarako epealdia gonbidapenean zehaztuko da.

Baldin eta, SPKLko hamabosgarren xedapen gehigarrian azaltzen diren kasuetan, ez badira nahitaez erabili behar baliabide elektronikoak eskaintzak eta parte hartzeko eskaerak aurkezteko, dokumentazioa administrazio kontratatzailearen erregistro orokorrean aurkeztu beharko da (egoitza ezaugarrien taulako H idatz zatian zehazten da) edo postaz bidali behar da; hori gonbidapenean zehazten den epealdiko azken eguneko arratsaldeko 14:30ak arte egin ahal izango da. Azken eguna baliogabea bada, epealdia hurrengo egun baliodunera luzatuko da.

Eskaintza eta atxikitako dokumentazioa postaz bidaliz gero, postetxean bidalketa egin den eguna frogatu behar da eta egun berean iragarri beharko da posta elektronikoz Ezaugarri Taulako E) atalean adierazitako helbidera, HAKLEOren 80. artikuluan jasotako moduan.

Bi betekizunok bete ezean, ez dira onartuko epealdia amaitu ondoren aurkezten diren dokumentazioak. Egun horretatik aurrera, egutegiko hamar egunetan dokumentazioa aurkezten ez bada, jada ez da inola ere onartuko.

Enpresa lizitatzailleak A eta B gutun azalak itxita aurkeztu beharko ditu (bakoitzaren barruan sartu behar den dokumentazioa gero zehaztuko da), eta datu hauek adierazi beharko dira bakoitzaren gainean:

- a) lizitazioa
- b) enpresaren izena
- c) eskaintza sinatzen duenaren izen-abizenak, eta enpresan duen kargua

Gutun azalak nahitaez sinatu behar ditu enpresa lizitatzaillearen ordezkariak.

Eskaintza aldi baterako enpresa elkartearen eratzeko konpromisoa hartu duten enpresa batzuek aurkezten badute, denen ordezkariak sinatu behar dute.



7.3.1.- A GUTUN AZALA: ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA FORMULEN BITARTEZ EBALUATU DAITEZKEEN IRIZPIDEEN INGURUKO DOKUMENTAZIOA. Eskaintza ekonomikoan lizitazioaren xede den ondasun horniduraren prezioaren zenbatekoa adierazi behar da. Aparteko partida batean zenbateko horri dagokion balio erantsiaren gainera zergaren karga zehaztu behar da (eredua I. eranskinean).

Gainera, eskaintza ezaugarrien taulako M) apartatuan adierazten diren adjudikazio irizpideen arabera baloratzeko, modu automatikoan edo formula bidez, behar diren agiriak aurkeztu behar dira.

7.3.2.- B GUTUN AZALA: BALDINTZA TEKNIKOAK, BALIO JUDIZIOA EGINEZ APLIKATZEN DIREN IRIZPIDEEN DAGOKIEN DOKUMENTAZIOA ETA GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK ATXIKITZEKO KONPROMISOA. Ezaugarrien taulako J) idatz zatian ezarriz gero, gutun azal honetan honako dokumentu hauek sartu behar dira: ezaugarrien taulako M) idatz zatian ezartzen diren adjudikazio irizpideak (formula bidez ebaluatu ezin direnak) baloratzeko behar diren dokumentuak; baldintza teknikoaren agirian aipatzen diren gainerako dokumentu guztiak.

Ezaugarrien taulako J) idatz zatian ezarriz gero, Administrazioak enpresa lizitatzailerari eskatu ahal izango die kaudimena eta gaitasuna edo, behar denean, sailkapena frogatzeaz gainera kontratuaren xedea behar bezala burutzeko behar diren baliabide pertsonal eta material guztiak jar ditzatela (eskaintzan zehaztu behar dira, II. eranskineko ereduaren arabera).

Gainera, gutun azal honetan sartu behar da enpresak emandako informazioaren konfidentzialtasunaren adierazpena, behar denean (eredua III. eranskinean).

Proposamena eta erantsitako dokumentazioa postaz bidaltzen badira, beste orri batean gutun azalaren edukien zerrenda zenbakitu bat agertuko da.

Enpresa lizitatzailerak bakoitzak eskaintza bat bakarrik aurkeztu ahal izango du, eskaintzak aurkezteko tokien kopurua gorabehera. Banako lizitatzailerak ezin dute aurkeztu beste eskaintzarik aldi baterako enpresa elkarte batean. Arau hauek hausteak berekin ekarriko du aurkeztutako eskaintza guztiak ez onartzea.

Hala ere, ezaugarrien taulako G) idatz zatian aldaera batzuk aurkezteko aukera ezar daiteke. Hala gertatzen denean, aldaerak bertan zehazten diren elementuekin eta baldintzekin bat etorri aurkeztu behar dira.

Horrelako kasuetan, ohiko eskaintza ekonomikoarekin batera proposatzen diren gainerako soluzioei dagozkienak ere aurkeztu behar dira; gainera, eskaintza ekonomikoan eskatzen diren datuak adierazi behar dira eta aldaeren justifikazioak aurkeztu behar dira.

Eskaintza aurkezteak berekin dakar:

- agiri honetako baldintza guztiak eta ezaugarrien taulan, baldintza teknikoaren agirian eta kontratuko gainerako agirietan zehazten diren guztia onartzea, inolako baldintzarik gabe eta salbuespenik aplikatu gabe.
- aurkeztutako datu guztiak egiazkoak direla eta kontratuaren xede diren prestazio guztiak kontratatzeke eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituela berresten duen erantzukizunpeko adierazpena.



- kontratazio mahaiarentzako eta organoarentzako baimena, Sektore Publikoko Lizitatzailleen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko estatu bateko eragile ekonomikoen zerrenda ofizialetan bildutako datuak aztertu ahal izateko.

Eskaintza aurkeztu ondoren lizitatzailleak ezin izango du atzera egin, bidezko arrazoia daukala frogatu ezean.

7.4. ESKAINTZAK AZTERTZEA ETA NEGOZIAZIOA.- Eskaintzak aurkezteko epealdia amaitutakoan, eta aurkeztutakoak aztertu ondoren, kontratazio organoak kontratua sustatu duen zerbitzu teknikoa gaituko du kontratuaren prestakuntzari lotutako kontsultak eta negoziazioak hasteko enpresekin.

Ez dira negoziatuko kontratuaren xedearen gutxieneko baldintzak eta adjudikazio irizpideak.

Kontratazioa sustatu duen zerbitzu teknikoak askatasun osoarekin negoziatu ahal izango du kontratua enpresekin, eta kontratua behin betiko sinatzea edo ez sinatzea erabaki ahal izango du. Aldeetako batek negoziazioa hausteak ez du ekarriko kontratuaren aurreko erantzukizunik, beste aldearen onustea zapuztu ezean.

Kontratazio organoek ziurtatuko dute negoziazioan enpresa lizitatzaille guztiek tratu bera jasotzea. Zehatzago esanda, ez dute informazioa bereizkeriaz emango, hau da, ez dute utziko enpresa lizitatzaille batek besteen aldean onura eduki dezan.

Kontratazio organoek enpresa lizitatzailleekin negoziatuko dituzte ezaugarrien taulako M) idatz zatian adierazitakoekin lotuta aurkeztu dituzten eskaintzak, agiri honetan, lizitazioaren iragarkian eta izan litezkeen agiri osagarrietan adierazten diren irizpideetara egokitzeko, helburua eskaintza onena identifikatzea dela.

Kontratazio organoak negoziazioak bukatzea erabakitzen duenean, horren berri emango die enpresa lizitatzaille guztiei eta epealdi bat ezarriko die denei eskaintza berriak edo berrikusitako eskaintzak aurkezteko.

Nolanahi ere, kontratazioaren espedientean egindako gonbidapenak, jasotako eskaintzak eta hauek onartzeko edo ezesteko arrazoiak azaldu behar dira.

7.5.- ESKAINTZEN KALIFIKAZIOA.- Eskaintzaren bat ez badator bat aztertu eta onartutako dokumentazioarekin, lizitazio oinarria gaingitzen bada, ezarritako eredia funtsean aldatzen bada, zenbatekoan errore nabarmena badago, edo enpresa lizitatzailleak onartzen badu errore edo akatsen bat dagoela eta ondorioz eskaintza ez dela bideragarria, Kontratazio Mahaiak bertan behera utziko du ebazpen arrazoitu baten bidez (SPKL, 84. artikulua).

Hain zuzen ere, eskaintza lizitaziotik kanpo uztea ekarriko du balio judizioa eginez haztatu behar diren irizpideei dagokien dokumentazioa aparteko gutun azal batean aurkeztu beharra ez betetzeak.

7.6.- ESKAINTZEN EBALUAZIOA.- Kontratazio Mahaiak eskaintzak ebaluatuko ditu agiri honetako M) idatz zatian garrantziari eta ponderazioari dagokionez ordena beherakorrean idatzita dauden balorazio irizpideei jarraiki. Hala, egoki deritzon txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango ditu eta bere proposamena egingo dio kontratazio organoari. Kontuan hartu beharreko irizpide bakarra prezioa bada, eskaintzarik onena preziorik baxuena ematen duena izango da.



Balorazio irizpideen aplikazioaren ondoren bi eskaintza edo gehiago berdindurik gertatzen badira balorazio onenarekin, ezaugarrien taulako M) idatz zatiko irizpideak aplikatuko dira (bertan agertzen diren ordenan) berdinketa hausteko.

Irizpide horiek ezarri ez badira, adjudikazio irizpideak aplikatu ondoren hainbat eskaintza berdindurik gertatzen badira, SPKLko 147.2 artikuluan ezartzen diren irizpide sozialak hartuko dira kontuan kontratua adjudikatzeko, bertan agertzen diren ordenan eta erreferentziazat eskaintzak aurkezteko epealdiko azken eguna hartuta.

III. ADJUDIKAZIOA

8.- ESKAINTZEN SAILKAPENA ETA ADJUDIKAZIODUNA IZATEKO PROPOSATZEN DEN ENPRESA LIZITATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.

8.1.- Kontratazio Mahaiak, SPKLko 150. artikuluan xedatzen denarekin bat etorritik, kontratazio organikoari bidaliko dio aurkeztu diren eskaintzetatik onartu direnak, goitik beherako ordenan sailkatuta, hautagaiekin kontsultak egin eta agirian edo iragarkian ezarritako kontratuaren baldintzak haietako batekin edo batzuekin negoziatu ondoren; horrekin batera adjudikazio proposamena eta akta ere bidaliko dizkio.

8.2.- Kontratua adjudikatzeko proposatzen den enpresa lizitatzailleak kontratua adjudikatu aurretik kontratazio organoari frogatu beharko dio badauzkala gaitasuna eta kaudimena frogatzen dituzten agiriak, administrazio baldintza partikularren agiriko 8.3 baldintzan eskatzen direnak, eta agiriok baliozkoak direla ere bai.

Eskaintzak aurkezteko epealdia amaitzen denean ebatziko da Administrazioarekin kontratatze eskatzen diren gaitasun eta kaudimen baldintzak betetzen direnez eta kontratatze debekurik dagoenez; hala bada, egoerak bere horretan jarraitu beharko du kontratua formalizatzen denean, hau da, baldintza horiek bete beharko dira eta ezin da egon kontratatze debekurik.

Aurrekoa betetzeko, dagokion kontratazio organoak eskaintzarik onena aurkeztu duen enpresa lizitatzaileri eskatuko dio aurkez ditzala, komunikazioa bidaltzen denetik hamar egun balioduneko epean, 140. artikularen 1. apartatuaren a) letratik c) letrara bitartean aipatzen diren inguruabarrak justifikatzen dituzten agiriak eta zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak, bai eta ekitaldi honetan, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egoteari buruzko informazioa ere, bai enpresa lizitatzaillearena berarena, bai bere gaitasunak baliatzen dituen beste enpresa batzuen, hau da, Ezaugarrien Taulako J) apartatuan eskatutakoaren arabera kontratua gauzatzeko hitzemandako baliabideak benetan dituela, eta kasuan kasuko behin betiko bermea eratu duela agiri honetako 9. klausulan adierazitakoaren arabera.

8.3.- 140. artikuluko 1. idatz zatiko a) – c) bitarteko letretan aipatzen diren inguruabarren frogagiriak direla eta, bai enpresa lizitatzailleak bai hark gaitasunak ziurtatzeko erabiltzen dituen enpresek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskaera norberaren izenean edo ahaldun gisa aurkeztu duenaren Nortasun Agiri Nazionala.

b) Pertsona juridiko diren enpresen jarduteko gaitasuna Merkataritza Erregistroan aurkeztutako eratze edo aldatze eskrituraren bidez egiaztatuko da, baldin eta aplikagarri dituen



merkataritza legeek hala eskatzen badute. Beharrezkoa izan ezean, eraketa eskritura edo agiriaren bidez, estatutuen bidez edo sorrerako egintzaren berri ematen duen agiriaren bidez egiaztatuko litzateke jarduteko gaitasuna; agiri horretan jarduerak zein arau bete behar dituen egongo da zehaztuta eta, gainera, kasuan kasuko erregistro ofizialekoak izan beharko dute.

c) Besteren izenean ari direnen ahalordeen askiespenak. Enpresa lizitatzailerak pertsona juridikoa bada, ahalordea Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon behar da. Ahalordea egintza jakin baterako eman bada, ez dago Merkataritzako Erregistroan inskribatuta egon beharrik, Merkataritzako Erregistroaren Araudiko 94.5 artikuluan xedatzen denarekin bat etorritik.

d) Finantza eta ekonomia kaudimenaren eta gaitasun teknikoaren edo lanbide gaitasunaren frogagiriak eta, behar denean, enpresa edo lanbide gaikuntzaren frogagiriak (ezaugarrien taulako F) idatz zatian azaltzen dira), Legeko 87. eta 89. artikuluetan ezartzen denaren arabera eta gutxieneko sailkapen eta kategoriatan talde edo azpitaldea kontuan hartuz, baldin eta kontratuaren xedea indarreko sailkapen talde edo azpitaldeetako batean badago (horretarako kontratuaren CPV kodea hartu behar da aintzat).

Lizitatzailerak enpresa sailkatuen erregistro ofizial batean inskribatuta dauden enpresa lizitatzailerak ez dute edukiko zertan aurkeztu aurreko idatz zatietan aipatzen diren agiriak. Salbuespen honek ziurtagiriaren bidez frogatu daitezkeen kaudimen eta gaitasunari buruzko frogagiriak soilik hartzen ditu.

Aldi baterako elkarteak eratuta lehiatu nahi duten enpresek banaka aurkeztu behar dute aurreko idatz zatietan eskatzen den dokumentazioa.

Jatorrizko agiriak edo kopia kautoak aurkeztu behar dira, indarreko legeriarekin bat etorritik.

SPKLko 65 - 76 bitarteko artikuluetan eta 95. artikuluan ezartzen denaren ondorioetarako, zerbitzuak eta Kontratazio Mahaiak aurkeztutako ziurtagiriaren eta agirien inguruko argibideak eskatu ahal izango dizkie enpresei, edo beste batzuk aurkezteko; hala eginez gero, enpresek bost egun balioduneko epealdia edukiko dute eskaerari erantzuteko.

Atzerriko enpresek VI. eranskinean xedatzen dena bete behar dute.

8.4.- Aurreko 8.2 klausulan eskatutako justifikazio dokumentazioari dagokionez, Arabako Foru Aldundiko kontratazio organoak, eskuragarri dauden Datu Bitartekaritzako Plataformen bidez, ofizioz egiaztatuko du dagokion ogasunean zerga betebeharrak beteta daudela eta adjudikazio proposamenaren xede den enpresa lizitatzailerak edo haren gaitasunaren xede diren enpresek Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzen dituztela.

Gainera, jarduera ekonomikoen gaineko zergari buruzko informazioa bildu behar bada enpresa lizitatzailerengandik edo haren gaitasunaren xede diren beste enpresa batzuegandik, betiere enpresa horiek berariazko baimena eman badute, proposatutako ereduaren edo antzekoaren arabera, kontratazio organoak behar diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu dagokion ogasunean, eskuragarri dauden datu bitartekaritzako plataformen bidez.

Kontsulta hori osatzeko, enpresa hori zerga horretan baja eman ez zaiolako erantzukizunpeko adierazpena ere aurkeztu behar da (eredua VII. eranskinean).



Arrazoi teknikoengatik elkarreragingarritasuna ezinezkoa bada, kontratazio organoak dokumentu hauek aurkezteko eskatu ahal izango dio adjudikazio proposamena jaso duen enpresa lizitatzailerari:

- Lizitatzaileraren zerga egoitza dagoen lurraldeko zerga administrazioak emandako ziurtagiria eta zergapeko jarduerak egin dituen lurraldeetako zerga administrazioek emandakoak, lizitatzailerak bere zerga betebeharrak egunean dituela frogatzen dutenak.

Lizitatzailerak merkataritzakoa ez den sozietatea bada, edo nortasun juridikorik gabeko entitatea, ziurtagiriak sozietatearen, entitatearen edo establezimenduaren titularrari buruzkoak izan behar dira.

Arabako Foru Ogasunarekiko betebeharren ziurtagiria Administrazioak eskatuko du ofizioz.

- Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren azken ordainagiria edo, jarduerari aribideko ekitaldian ekin bazaio, zerga horren matrikularen alta, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean. Gainera, zerga horretan baja eman ez zaiolako erantzukizunpeko adierazpena ere aurkeztu behar da (eredua VII. eranskinean).
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiria, lizitatzailerak haren kuoten ordainketak egunean dauzkala frogatzen duena.

Lizitatzaileraren eta enpresa sailkatuen erregistro ofizial batean inskribatuta daudela frogatzen duen indarreko ziurtagiria dutela frogatzen dutenek ez dute edukiko zertan aurkeztu ziurtagiri hauek hura indarrean dagoen artean, baldin eta bertan azaltzen diren inguruabarrak aldatzen ez badira; kontratua formalizatzen duen agirian enpresak berariaz adierazi beharko du indarreko ziurtagiria daukala eta bertan azaltzen diren inguruabarrak ez direla aldatu. Nolanahi ere, jarduera ekonomikoen gaineko zergaren matrikulan baja eman ez zaiola dioen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du.

8.5.- Aurreko 8.2 puntuan azaltzen dena ez bada betetzen ezarritako epealdiaren barruan, enpresa lizitatzailerak eskaintza bertan behera utzi duela pentsatuko da eta lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren ehuneko 3a eskatuko zaio (BEZ gabe) zehapen kontzeptuan; gero dokumentazio bera eskatuko zaio eskaintzen sailkapeneko hurrengo enpresa lizitatzailerari.

9.- BEHIN BETIKO BERMEA

9.1.- Eskaintzarik onena aurkeztzen duen enpresa lizitatzailerak bermea jarri beharko du kontratazio organoaren esku: eskaintzako azken prezioaren ehuneko 5, gehienez, balio erantsiaren gaineko zerga zenbatu gabe (ezaugarrien taulako O idatz zatia).

Kontratuaren zenbatekoa unitateko prezioen bitartez ezartzen bada, eratu beharreko bermearen zenbatekoa lizitazioaren gehieneko aurrekontuaren arabera finkatuko da, balio erantsiaren gaineko zerga zenbatu gabe.

Kontratuko prezioak behin-behinekoak izanez gero, ehunekoa finkatutako gehieneko prezioari aplikatuko zaio, balio erantsiaren gaineko zerga zenbatu gabe.

SPKLko 107.2 artikuluan arautzen diren kasu berezietan berme osagarria eskatu ahal izango da, ezaugarrien taulako O) idatz zatian ezartzen bada.



9.2.- Administrazioak enpresa lizitatzailerari eskatuko dio errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik hamar egun baliodun pasatu baino lehen (edo bost, izapideak presaz eginez gero) aurkez dezala bidezko behin betiko bermea eratu duela frogatzen duen dokumentazioa.

Betekizun hau betetzen ez bada enpresari egotz dakiokeen arrazoi bategatik, Administrazioak ez dio adjudikatuko kontratua eta SPKLko 150.2 artikuluko azken paragrafoan xedatzen dena aplikatuko da.

9.3.- Bermea eratzeko SPKLko 108. artikuluan ezartzen diren bideak erabil daitezke, HAKLAOko 55. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen diren baldintzak beteta. Onartutako ereduak VIII., IX., X. eta XI. eranskinetan daude.

Behin betiko bermearekin SPKLko 110. artikuluan aipatzen diren kontzeptuei erantzungo zaie.

Bermeak itzultzeko eta kitatzeko SPKLko 111. artikuluan eta HAKLAOko 65. artikuluan ezartzen dena aplikatuko da.

10.- ADJUDIKAZIOA ETA JAKINARAZPENA

10.1.- Kontratazio organoak adjudikaziorako proposatzen den enpresa lizitatzailerak aurkeztutako dokumentazioa jaso ondoko bost egun baliodunetan adjudikatu beharko du kontratua (izapideak presaz eginez gero, ondoko hiru egun baliodunetan).

10.2.- Kontratuaren adjudikazioduna hautatzeko irizpide bakarra prezioa bada, eskaintzak irekitzeko epealdia amaitu ondoren hamabost egun pasatu baino lehen adjudikatu beharko da kontratua (izapideak presaz eginez gero, zortzi egun pasatu baino lehen).

Kontratua adjudikatzeko hainbat irizpide hartu behar badira kontuan, edo aplikatzen den irizpide bakarra bizi zikloaren kostua ahalik txikiena izatea bada, eskaintzak irekitzen direnetik bi hilabete pasatu baino lehen adjudikatu beharko da kontratua (izapideak presaz eginez gero, hilabete pasatu baino lehen), ezaugarrien taulako P) idatz zatian besterik ezarri ezean.

Eskaintza gutun azal batean baino gehiagotan aurkezten bada eta, beraz, bakoitza egintza batean ireki behar bada, aurreko epealdia B gutun azala irekitzen denetik zenbatuko da.

10.3.- Aurkeztutako eskaintzetako batek baldintzen agirietan eskatzen diren betekizun guztiak betetzen baditu, kontratua nahitaez adjudikatu behar da. Beraz, halako kasuetan kontratua ezin da utzi adjudikatu gabe.

Hala ere, SPKLko 152. artikuluan ezartzen denarekin bat etorritik, Administrazioak, kontratua formalizatu baino lehen, uko egin ahal izango dio adjudikatzeari herritarren interesak direla eta, edo bertan behera utzi ahal izango du izapidetutako prozedura, konponezineko akatsik gertatu bada. Batera zein bestera, enpresa lizitatzailerari konpentsazioa eman beharko die ezaugarrien taulako Q) idatz zatian ezartzen den bezala.

10.4.- Adjudikazioan arrazoiak azaldu beharko dira; baliabide elektronikoen bidez jakinaraziko zaie enpresa hautagai edo lizitatzailerari eta, gainera, kontratatzailearen profilean agertuko da hamabost egunez.

Jakinarazpenean adjudikazio prozeduran izan diren enpresek adjudikazio erabakiaren kontra ondo oinarritutako errekurtsioa aurkeztu ahal izateko behar den informazio guztia eman beharko da. Honako datu hauek zehaztu behar dira, hain zuzen:



- a) Baztertu diren enpresa hautagaiak direla eta, bazter uzteko kontuan hartu diren arrazoen laburpena.
- b) Adjudikazio prozeduratik kanpo utzitako enpresa lizitatzaleei dagokienez, eskaintza ez onartzeko arrazoiak, laburtuta, eta enpresa lizitatzaleen balorazioen banakapena (adjudikaziodunarena barne).
- c) Kasu guztietan, enpresa adjudikaziodunaren izena, beraren eskaintzaren ezaugarriak eta onartutako gainerako eskaintza guztiak gaindituta kontratua berari adjudikatzea eragin duten onurak.

Jakinarazpenean eta kontratatzailearen profilean kontratua formalizatzeko epealdia zehaztu beharko da, SPKLko 153.3 artikuluan ezartzen den bezala.

Adjudikazioan behin betiko zehaztu eta finkatuko da kontratua.

10,5.- Aurkezten diren eskaintzak (bai onartzen direnak, bai ireki gabe baztertzen direnak, bai ireki ondoren ezesten direnak) lizitazioaren espedientearen artxibatuko dira.

Baldin eta, SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian adierazitako kasuren bat betetzen delako, ez bada nahitaezkoa bitarteko elektronikoak erabiltzea proposamenak eta parte hartzeko eskaerak aurkezteko, behin kontratua ebatzi ondoren eta errekursoak aurkezteko epeak errekurtsorik aurkeztu gabe igarotzen badira, proposamenekin batera doan dokumentazioa interesdunen eskura geratuko da.

Urtebeteen enpresa lizitatzaleek dokumentazioa eskatzen ez badu, ezabatu egin ahal izango da.

IV. KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA

11.- KONTRATUA FORMALIZATU AURREKO BETEBEHARRAK

11.1.- Behin betiko adjudikazioaren jakinarazpenaren hartu agiria jaso ondoren, enpresa adjudikaziodunak kontratua formalizatu aurretik ezaugarrien taulako R) idatz zatian aipatzen diren kontratuen polizen eta lehen primen ordainagirien kopiak aurkeztu beharko ditu. Enpresak bere kargura kontratatu behar ditu aseguru horiek eta bere kargura mantendu kontratuaren iraunaldian eta berme aldiaren.

Bermeen aseguruaren mugak Administrazioak zehaztuko ditu kontratuaren xedearen ezaugarriak kontuan hartuta.

11.2.- Kontratua indarrean den artean kontratazio organoak enpresa kontratistari eskatu ahal izango dio erakuts diezaiola aseguruaren dokumentazioa edo, bestela, eman diezazkiola aseguru horien polizen kopiak edo ziurtagiriak, eta frogatzen diezaiola primen ordainketak egunean dauzkala. Kontratistak eskatutako guztia egin beharko du, eta egiten ez badu, kontratazio organoak ziurtapenen edota fakturen ordainketa eten ahal izango du, bai eta, obrak jasota badaude, berme aldiaren konputuaren hasiera ere. Etenaldi hau ez da konputatuko kalte ordainen ondorioetarako. Gainera, eskaera ez betetzeak erantzukizunak sor ditzake.

12.- KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA



12.1.- Administrazioaren kontratuak lizitazioarekin guztiz bat datorren administrazio agirian formalizatu beharko dira. Kontratua aldi baterako enpresa elkarte bati adjudikatzen bazaio, enpresek 12.2 eta 12.3 idatz zatietan ezartzen den epealdian frogatu beharko dute ura eskritura publikoan eratu dela. Elkarrearen iraupena kontratua azkendu artekoa izango da. Gainera, aldi baterako enpresa elkarrearen IFZ aurkeztu beharko da.

12.2.- Kontratuaren adjudikazioaren kontra kontratazioaren arloko errekurtsio berezia aurkeztu ahal bada, ezin izango da formalizatu enpresa lizitatzailerari adjudikazioaren jakinarazpena bidaltzen zaienetik hamabost egun baliodun pasatu baino lehen.

Kontratazio organoak enpresa adjudikaziodunari eskatuko dio kontratua formalizatzeko errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik bost egun pasatu baino lehen (izapideak presaz eginez gero, hiru egun), aurreko paragrafoan ezartzen den epealdian kontratuaren formalizazioa etetea dakarren errekurtsorik aurkezten ez bada. Gauza bera egingo da errekurtsioa ebazteko eskumena daukan organoak etendura indargabetzen duenean.

12.3. – Gainerako kasuetan, kontratuaren formalizazioa enpresa lizitatzailerari adjudikazioaren berri eman eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita hamabost egun baliodun igaro aurretik (zortzi izapidetza premiazkoa baldin bada) egin beharko da.

12.4.- Enpresa adjudikaziodunari egotz dakizkikeen arrazoiengatik kontratua aipatutako epealdian formalizatzen ez bada, Administrazioak lizitazioaren oinarrizko aurrekontuko ehuneko 3 eskatuko dio (BEZ kanpo) zehapen kontzeptuan; hori, lehenik eta behin, behin betiko bermearen kontra ordainduko da, eratuta egonez gero. Gainera, SPKLko 71. artikuluko 2. idatz zatiko b) letran ezartzen dena aplikatuko da.

Kasu horretan, eskaintzen sailkapeneko hurrengo enpresa lizitatzailerari adjudikatuko zaio kontratua, agiri honetako 8. baldintzan aipatzen den dokumentazioa aurkeztu ondoren. Aurreko idatz zatietan ezartzen diren epealdiak aplikatuko dira.

12.5.- Kontratua ez formalizatzeko arrazoiak Administrazioari egotzi ahal bazaizkio, enpresa kontratistari atzerapenak eragiten dituen kalteen ordaina emango zaio.

12.6.- Kontratuari ezin izango zaio ekin formalizatu gabe dagoen artean, espedientea presaz izapidetzen denean izan ezik.

V. KONTRATUA BURUTZEA

13.- KONTRATUA BURUTZEA

13.1.- OBREN ZUZENDARITZA ETA IKUSKAPENA. Kontratuaren arduraduna izango da Ezaugarri Taulako AD) apartatuan aipatutako kontratazio organoari atxikitako lanpostuaren titularra, titulazio egokia eta nahikoa duena, eta itundutako prestazioa behar bezala egiten dela egiaztatzeaz, koordinatzeaz eta zaintzeaz zuzenean arduratuko dena.

Hainbat laguntzaile eduki ditzake agindupean bere lanak egiteko. Laguntzaileak beren titulu profesionalaren edo ezagutza berezien arabera beteko dituzte dagozkien jarduerak.

Kontratua formalizatzen denetik hamabost egun natural pasatu baino lehen Administrazioak pertsona arduradunaren berri emango dio enpresa kontratistari, eta gauza bera egingo du bere laguntzailerari dagokienez. Aldaketak idatziz jakinarazi beharko zaizkio enpresa kontratistari.



13.2.- KONTRATUA BURUTZEKO ARAU OROKORRAK

13.2.1.- Epealdia eta emateko lekua. Hornitu beharrekoa fabrikatzeko edo emateko epealdia ezaugarrien taulako S) idatz zatian ezartzen da; kontratua formalizatzeko agiria sinatu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko da.

Ezaugarrien taulako S) idatz zatian ezarritik gero, kontratua behin edo hainbat aldiz luzatu ahal izango da; luzapenak kontratazio organoarekin adostuko dira eta nahitaezkoak izango dira enpresarentzat.

Izapidetzea presazkoa bada, kontratuari formalizatzen den egunetik hilabete pasatu baino lehen ekin behar zaio. Epealdi horretan kontratuko lanei ekiten ez bazaie, kontratua suntsiarazi ahal izango da, honako kasu honetan izan ezik: atzerapena ezin bazaie egotzi administrazio kontratatzaileari ez enpresa kontratistari eta horren berri ematen bada arrazoitutako ebazpenean.

Hornidura Administrazioak adierazten dituen zentroetan emango da (ezaugarrien taulako T) idatz zatian zehazten dira), funtzionatzeko moduan baldintza teknikoaren agirian ezartzen den bezala. Garraioaren, instalazioaren eta ematearen gastuak enpresa adjudikaziodunaren kontura izango dira.

Hornidura nolakoa den gorabehera, enpresa adjudikaziodunak ez du edukiko eskubiderik inolako ordainik jasotzeko ondasunek Administrazioari eman aurretik jasaten dituzten galera, matxura eta kalteengatik, jasoketan berandutzea gertatu ezean.

13.2.2.- Horniduren egiaztapenak. Administrazioak SPKLko 303. artikuluan ezartzen diren ahalmenak dauzka. Hain zuzen ere, fabrikazioan zehar nahi duen guztietan egiaztatu dezake ondasunen kalitatea. Honen ondorioetarako, ahaldundutako Administrazioako pertsona batek lehengaiak kontrolatu ahal izango ditu in situ, noiznahi fabrikazioan zehar eta aurretik abisatu gabe, enpresak eskaintako materialekin bat datozen egiaztatzeko. Hala ez bada, desadostasun akta egingo da, eta horrek kontratua suntsitzea ekar lezake.

13.3.- EZINBESTEKO KASUAK. Ezinbesteko kasuetan enpresa kontratistak jasaten dituen kalte-galeren ordaina jaso ahal izango du, baldin eta zuzenbaterik gabe jardun ez badu.

Ezinbesteko kasuak SPKLko 239. artikuluan arautzen dira. Kasu horiek HAKLAOko 146. artikuluan xedatzen denarekin bat etorriz izapidetuko dira.

13.4.- ZEHAPENAK KONTRATUAREN XEDEA GAIZKI EGITEAGATIK, ZATI BAT EZ EGITEAGATIK ETA ATZERATZEAGATIK. Kontratuaren xedea gaizki egiten bada, kontratua burutzeko ezarritako konpromisoak edo baldintza bereziak betetzen ez badira edo enpresa kontratistak kontratuan zehazten den prestazioetako baten burutzapen partziala betetzen ez badu berari egotzi ahal zaio arrazoi batengatik, zehapena ezarri ahal izango da, ezaugarrien taulako U) idatz zatian ezartzen bada.

Enpresa adjudikaziodunak kontratua burutzeko epealdia eta administrazioak zehaztutako epealdi partzialak bete beharko ditu.

Enpresa kontratistak ez badu betetzen aurreko epealdi horietako bat berari egotz dakiokeen arrazoi batengatik, Administrazioak bi aukera edukiko ditu: kontratua suntsiarazi edo zehapen ekonomikoa ezarri. Zehapenen zenbatekoak ezaugarrien taulako U) idatz zatian finkatu dira.



Atzerapena kontratistari egotzi ezin zaion arrazoi batengatik gertatzen bada, SPKLko 195.2 artikuluan xedatzen dena aplikatuko da.

Nolanahi ere, enpresa kontratistaren atzerapena ezartzeko ez da beharrezkoa izango Administrazioak aurretik interpelatzea ez hertsatzea.

13.5.- KALTE-GALERAK.

Kontratuaren zati bat bete ez, kontratua akatsekin bete edo burutzapenean atzerapena gertatu eta, hala ere, zehapenik ezarri behar ez bada edo, horregatik ezarri beharreko zehapenak ez baditu estaltzen Administrazioari egindako kalteak, horrek kalte-galeren ordaina eskatuko dio enpresa kontratistari.

13.6.- ORDAINKETAK ENPRESA KONTRATISTARI. Enpresa kontratistak eskubidea edukiko du kontratuan ezarritako baldintzekin eta horien aldaketekin (egonez gero) bat etorritik Administrazioari egindako eta hark formalki jasotako hornidurak kobratzeko, itundutako prezioak aplikatuz. Kontratuaren xedearen prezioa ordaintzeko modua ezaugarrien taulako V) idatz zatian ezarriko da.

Hornidura hainbat ondasun ematetan gauzatzen bada, ordainketa partzialak egin ahal izango dira, baldin eta ezarritako epealdiak betetzen badira eta hornidurak SPKLko 300. eta 301. artikuluetan ezartzen denarekin bat etorritik egiten badira.

Abenduaren 30eko 67/2014 Foru Dekretuaren bidez foru administrazioako fakturen kontabilitate erregistroa sortzen da eta hori izapidetzeko prozedura onartzen da. Bertan ezartzen dena betetzeko, enpresa kontratistak formatu elektronikoan aurkeztu beharko ditu fakturak horretarako berariaz ezarritako prozeduraren bitartez.

Emandako ondasunak kontratuan zehaztutakoarekin bat datozela frogatzen duten dokumentuen onarpen egunetik hogeita hamar egun pasatu baino lehen ordaindu beharko du prezio Administrazioak; nolanahi ere, SPKLko 210. artikuluko 4. idatz zatian ezartzen dena aplikatuko da. Ordainketan atzeratzen bada, epealdia amaitu ondoko berandutze interesak ordaindu beharko dizkio enpresa kontratistari, bai eta kobrantza kostuen ordaina eman ere, abenduaren 29ko 3/2004 Legeak ezartzen duenarekin bat etorritik (horren bidez eragiketa komertzialetan berankortasunaren aurka egiteko neurriak ezartzen dira), SPKLko 198.4 artikuluan xedatzen den bezala.

Ezaugarrien taulako W) idatz zatian ezarritik gero, enpresa kontratistak kontrako ordainketak jaso ahal izango ditu kontratuaren xedean ezarritako prestakuntza eragiketengatik, SPKLko 198.3 artikuluan xedatzen denarekin bat etorritik. Berak eskatu beharko ditu.

13.7.- KONTRATISTAREN BETEBEHAR ZEHATZAK ETA ESKA DAITEZKEEN GASTUAK. Kontratuaren araubide juridikoaren ondoriozko betebeharrak orokorrean gainera honako betebeharrak berezi hauek ere edukiko ditu kontratistak:

- a) INGURUMENARI, GIZARTEARI ETA LANARI DAGOKIONEZ. Enpresa kontratatzaileak ingurumenari, gizarteari eta lanari dagozkion indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu, Europar Batasuneko zuzenbidean, nazio mailako zuzenbidean, hitzarmen kolektiboetan edo Estatuarekin lotura duten ingurumen, gizarte eta laneko nazioarteko zuzenbide xedapenetan ezarritak daudenak, eta bereziki SPKLko V. eranskinean ezarritakoak.

Zehazki:



1. Eman beharreko prestazioak lan ordenantza edo hitzarmen kolektibo bati lotuta badaude, hitzarmen kolektiboan edo lan ordenantzan ezarritako xedapenak bete behar ditu.

2. Enpresak laneko arriskuen prebentziorako behar diren neurri guztiak ezarri behar ditu. Halaber, indarreko araudiak laneko arriskuak saihesteko ezarritako betebeharrak bete behar ditu eta honako betebeharrak hauek bete dituela frogatu behar du kontratatutako jarduerari hasi aurretik:

- Kontratatutako jarduerari dagokion prebentzio jardueraren arriskuak eta plangintza ebaluatzea.

- Kontratua betetzeko lanetan ariko diren langileei prebentzioari buruzko trebakuntza eta informazioa ematea.

- Beharrezkoak diren banakako babes ekipamenduak eman direlako egiaztatzea.

3. Enpresak lan batzuk azpikontratatzeko baditu, azpikontratistek aurreko betebeharren egiaztapenak eskatu beharko dizkie eta administrazio kontratatzaileari eman beharko dizkie. Gainera, segurtasun eta osasun koordinatzaileari jakinarazi behar dizkie azpikontratazioak, lanei ekin aurretik.

4. Langileek lanean ari direla istripua izan edo kalteren bat jasanez gero, adjudikaziodunak indarrean dauden arauak xedatzen dutena bete behar du bere erantzukizunpean. Administrazioak ez du edukiko inolako erantzukizunik.

5. Legezko arau batek, hitzarmen kolektibo batek edo eraginkortasun orokorreko negozio kolektiboko akordio batek agintzen duela eta ezaugarrien taulako X) idatz zatian ezarritako gero, enpresa adjudikazioduna enplegatzaile gisa subrogatu beharko da laneko harremanetan eraginpeko langileei dagokienez. SPKLko 130. artikuluan ezartzen dena betetzeko, ezaugarrien taulan. subrogazioaren eraginpeko langileen kontratuen baldintzei buruzko informazio guztia biltzen da.

b) KONTRATUA GAUZATZEKO EGIN BEHARREKO GASTUAK. Enpresa kontratistaren kontura izango dira erakunde ofizialen zein norbanakoen lizentziak, agiriak eta bestelako informazio guztiak eskuratzeko egin beharreko gastu guztiak. Halaber, kontratistaren kontura izango dira indarreko xedapenen arabera aplikatu beharreko zerga, eskubide, tasa, konpentsazio, karga eta gainerako gastu guztiak ere (haietan ezarritako kopuruak aplikatuko dira).

Enpresa adjudikaziodunak bere kabuz eskuratu behar ditu kontratua betetzeko behar diren baimen eta lizentzia guztiak, hala ofizialak nola banakoenak.

c) HIZKUNTZA IRIZPIDEAK. Kontratuaren enpresa adjudikaziodunak eta egon daitezkeen enpresa azpikontrastek, kontratua gauzatzean, zaindu egin beharko dute euskararen eta gaztelaniaren koofizialtasuna, elebitasun irizpideak betez eta herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuz, arau hauetan xedatutakoarekin bat etorritik: Euskal Herriaren Autonomia Estatutua, Euskararen Erabilera Normalizatzeko 10/1982 Oinarriko Legea, Arabako foru administrazioan eta lurralde historikoan euskararen erabilera normalizatzeari buruzko 10/1998 Foru Araua, Euskal Sektore Publikoan Euskararen



Erabilera Normalizatzeko 19/2024 Dekretua eta Arabako Foru Aldundiaren euskararen erabilera normalizatzeko planak.

13.8.- KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK. Enpresa kontratista adjudikaziodunak Administrazioak Arabako Lurralde Historikoko Sektore Publikoaren gardentasunerako, herritarren parte hartzerako eta gobernu onerako otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauko III. kapituluko betebeharrak betetzeko egiten dituen informazio eskakizunei erantzuna eman beharko die, eta kontratua gauzatzean kontratuaren xedearekin lotutako izaera sozialeko eta ingurumeneko baldintzak eta bestelako baldintza bereziak aplikatu beharko ditu (horiek guztiak ezaugarrien taulako X) idatz zatian zehazten dira).

13.9.- KONTRATUA LAGATZEA ETA AZPIKONTRATATZEA. Kontratuaren lagapenerako SPKLko 214. artikuluan ezartzen dena aplikatuko da. Kontratuaren adjudikazioa daukan enpresak haren zati bat hirugarren batzuei azpikontratatu nahi izanez gero, SPKLko 215. artikuluan ezartzen dena bete beharko du, eta enpresa azpikontratatuen eta hornitzaileen ordainketak lege bereko 216. artikuluan xedatzen denarekin bat etorriz egin behar ditu.

Azpikontratazioaren gehieneko ehunekoa ezaugarrien taulako Y) idatz zatian zehaztuta egongo da; bertan ezarritz gero, enpresa lizitatzailerik eskaintzan honako datu hauek eman beharko dituzte: zenbat azpikontratatuko asmoa duten, azpikontratazioaren zenbatekoa, eta lanak gauzatzeko aginduko zaien enpresa azpikontratatuen izenak edo profilak, gaitasun profesional edo teknikoko baldintzen arabera zehaztuta.

Edonola ere, kontratua adjudikatu ondoren, eta gehienez ere kontratua egiten hasten denerako, enpresa kontratistak idatziz jakinarazi beharko dio kontratazio organoari azpikontratuak egiteko asmoa duela, adierazi beharko du zenbat nahi duen azpikontratatu, zer enpresa azpikontratatu duen, nor den enpresa azpikontratatuen legezko ordezkaria (edo ordezkariak), eta harremanetarako datuak eman beharko ditu. Horrez gain, justifikatu egin beharko du enpresak behar besteko gaitasuna duela lanak egiteko, elementu tekniko eta giza baliabideei eta esperientziari dagokionez, eta baieztatu egin beharko du enpresak ez duela kontratatzeke debekurik, eta informazio hori kontratu nagusia gauzatzean aldatzen bada, horren berri eman beharko du, bai eta enpresa azpikontrataste berriei buruzko informazio berri guztia ere.

13.10.- KONTRATUA ALDATZEA. Kontratu hau interes publikoko arrazoiengatik aldatu ahal izango da bakarrik, ezaugarrien taulako Z) idatz zatian edo SPKLko 205. artikuluan ezartzen den bezala (kasuak eta modua), SPKLko 207. artikuluan arautzen den prozedurarekin bat eginez.

Kasu hauetan, kontratazio organoak erabakitako aldaketak derrigorrezkoak izango dira enpresa kontratistarentzat; hala ere, 205. artikuluan zehazten diren kontratu aldaketak ez dira derrigorrezkoak izango, horiek derrigorrezkoak izateko gertatu behar baita banaka edo batera kontratuaren hasierako prezioa ez aldatzea ehuneko 20 baino gehiago, BEZ kanpo.

13.11.- KONTRATUA ETETEA. Honetaz SPKLko 208. artikuluan eta HAKLAOko 103. artikuluan ezartzen dena aplikatuko da.

Kontratua aldi batez (zati bat edo dena) edo behin betiko eteten bada, etete akta egingo da eta bertan honako datuak jaso behar dira: Administrazioak kontratua eteteko hartutako erabakia, etetea eragin duten inguruabarrak, kontratuaren burutzapena zertan den eta eteteak ukitzen dituen kontratuaren zatiak.



Etetea erabakitzen denean, Administrazioak enpresa kontratistari jasandako kalte-galerak ordainduko dizkio SPKLko 208.2 artikuluan adierazitako arauekin bat eginez.

13.12.- KONTRATUA ONARTZEA ETA LIKIDATZEA. Kontratua SPKLko 210. eta 300. artikuluetan xedatzen denarekin bat etorriz jasoko da.

13.12.1.- Enpresa kontratistak xedea oso-osorik egindakoan, kontratuan ezarri bezala, kontratua betetzat joko da, Administrazioa ados badago.

Kontratua amaitu dela jasota gera dadin, Administrazioak hura onartzeko egintza formal eta positiboa edo adostasun egintza eskatuko du entregatzen denetik edo kontratuaren xedea burutzen denetik hilabete pasatu baino lehen, edo ezaugarrien taulako AA) idatz zatian ezarritako epealdian.

Kontratazio organoak enpresa kontratistak kontratua ezarritako baldintzei lotuta burutu duenez ebatziko du SPKLko 190 eta 191. artikuluetan ezartzen diren ahalez baliatuz.

Ondasunak jasotzeko moduan ez badaude, horren berri adieraziko da onarpen aktan eta enpresa kontratistari antzemandako akatsak zuzentzeko zer egin behar duen azalduko zaio edo eskatuko zaio beste hornidura bat egiteko itundutakoari lotuta.

13.12.2.- Onarpenaren akta egiten denetik hogeita hamar egun pasatu baino lehen kontratuaren likidazioa egin beharko da eta enpresa kontratistari jakinarazi beharko zaio, eta likidazio horren emaitza ordaindu beharko zaio.

13.13.- BERME ALDIA. Onarpenaren akta egiten denetik berme aldia, ezaugarrien taulako AB) idatz zatian ezartzen dena, hasiko da zenbatzen. Berme aldia Administrazioak eragozpenik jartzen ez badu, enpresa kontratistaren erantzukizuna azkenduko da (ezkutuko akatsengatikoa ez beste guztia), eta ondoren bermea itzuli edo kitatuko da eta, bidezkoa bada, ordaindu gabeko kopuruak ordainduko dira.

Berme aldia hornitutako ondasunetan akats edo bizioren bat dagoela egiaztatzen bada, Administrazioak enpresa kontratistari eskatu ahal izango dio ondasun akastunen ordezkioak hornitzeko edo konpontzeko.

Berme aldia Administrazioak erabakitzen badu ondasunak ez direla egokiak kontratuaren xedea betetzeko enpresari egotz dakizkiokeen akats edo bizioen erruz, SPKLko 110 e) eta 305. artikuluetan xedatzen dena aplikatuko da.

Berme aldia Administrazioak ez badu formalizatzen SPKLko 305. artikuluko 1. eta 3. idatz zatietan aipatzen dituen eragozpenetako bat edo salaketa, enpresa kontratistak ez du edukiko erantzukizunik emandako ondasunengatik eta bermea itzuliko zaio.

Berme aldia amaituta dagoela, kontratua bukatzen den egunetik urtebete pasatu ondoren kontratuaren onarpen formal eta likidazioa ez badira egin eta arrazoiak ezin bazaizkio egotzi enpresa kontratistari, bermea itzuli edo kitatuko da, gehiago luzatu gabe, SPKLko 110. artikuluan aipatzen diren erantzukizunak argituz gero.

13.14.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEA. Kontratua SPKLko 211. eta 306. artikuluetan ezartzen diren kasuetan suntsiaraziko da. Kontratua suntsiaraztea kontratazio organoak erabakiko du, ofizioz zein enpresa kontratistak eskatuta (entzunaldia bermatu behar zaio). Suntsiarazpenak SPKLko 212., 213. eta 307. artikuluetan ezartzen diren ondorioak sortuko ditu.



Ezaugarrien taulako U) idatz zatian kontratua ez betetzeagatik zehapenak ezarri ezean, burutzapen baldintza bereziak, ezaugarrien taulako X) idatz zatian zehazten direnak, kontratuaren ezinbesteko betebeharrak izango dira SPKLko 211.f) artikuluan ezartzen denaren ondorioetarako.

Era berean, kontratuaren ezinbesteko betebeharra izango da ezaugarrien taulako J) idatz zatian eskatutako giza baliabideak edo materialak nahikoak direla atxikitzeko konpromisoa.

Kontratua enpresa adjudikaziodunaren erruz suntsitzen bada, behin betiko bermea atxikiko zaio eta, gainera, bermearen zenbatekoak kalteak estaltzen ez baditu, kalte-galeren ordaina ere eskatuko zaio.

13.15.- KONFIDENTZIALITASUNA. Agiri honen xedea gauzatzeko Administrazioaren titulartasuneko fitxategietako datu pertsonalak eta tratamenduak erabili behar badira, entitate adjudikaziodunak tratatu beharreko datuen tratamenduaren arduradun gisa jardungo du, bat etorritz Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak, datuen babesarenak (DBEO), 28. artikuluan eta Estatuan hura garatzen duen araudiak xedatutakoarekin. Konfidentzialtasunari buruzko klausuletan arautuko da nola tratatu behar dituzten hirugarrenek datu pertsonalak. Entitate adjudikaziodunak bete beharreko agirien ereduak agiri honen XII. eranskinean daude.

Era berean, adjudikazioaren publikotasunari eta enpresa hautagai eta lizitatzailerei eman beharreko informazioari buruzko SPKLko xedapenak albo batera utzi gabe, kontratazio organoak ezin izango du hedatu enpresek III. eranskinean konfidentzialtzat (sekretu tekniko edo komertzialak direla eta) jotako informazioa. Hala, enpresak arrazoitu egin beharko du zergatik diren konfidentzialak.

VI. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

14.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

14.1.- Kontratazio organoaren eskumenak dira: kontratu administratiboak interpretatzea; kontratua betetzean sortzen diren zalantzak argitzea; kontratuak aldatzea interes publikoko arrazoiak direla eta; kontratua gauzatzean enpresa kontratistari egotz dakioken erantzukizuna adieraztea; kontratua etetea; kontratua suntsiaraztea eta horren ondorioak zehaztea. Egiteko horietan SPKLk eta urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak, Administrazio publikoen kontratuen Legearen arautegi orokorra onartzen duenak, ezartzen dituzten mugak eta baldintzak aplikatuko dira.

Era berean, kontratazio organoak enpresa kontratistek kontratua burutzeko lanetan egindako jarduerak ikuskatzeko eskumena du, aurreko lege horretan ezartzen den bezala eta bertan zehaztutako muga barnean.

Kontratazio organoak kontratuak interpretatzeko, aldatzeko eta ebazteko ahalmenez baliatuta ematen dituen erabakiak berehala bete beharko dira.

14.2.- Kontratu honen interpretazioaz, aldaketaz, suntsiarazpenaz eta ondorioez sortzen diren auziak kontratazio organo eskudunak ebatziko ditu. Honen erabakiek administrazio bidea agortuko dute, eta haien kontra administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da, jurisdikzio hori arautzen duen legeak ezarritakoarekin bat etorrita, eta kontuan izanda



interesdunek berraztertzeko errekurtoa jar dezaketela, 39/2015 Legeak, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenak, 123. eta 124. artikuluetan ezartzen duenarekin bat etorriz.

14.3.- SPKLko 44.2 artikuluan zehazten diren ekimenei buruz administrazioarekiko auzi errekurtoa jarri aurretik kontratazioaren alorreko errekurto berezia jarri ahal izango da. Errekurto berezi horiek aztertzea eta ebatzea Arabako Foru Aldundiaren Kontratu Errekurtoen Foru Organo Administrazioaren egitekoak dira (organo hori irailaren 28ko Diputatuen Kontseiluaren 44/2010 Foru Dekretuaren bidez sortu da).